

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

NAVARIDASKO UDALA

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2020ko ordainagiriak jendaurrean jarri eta kobratzea

Navaridasko trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga 2020an ordaindu behar dutenen errolda behin-behineko onetsi ondoren, espedientea hamabost egun baliodunegongo da jendaurrean, udal idazkaritzan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, aztertu eta egoki irizitako erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, espedientea behin betiko onetsizat emango da.

Borondatezko aldiko dirubilketa apirilaren 1etik maiatzaren 31ra izango da, biak barne. Ordainketa inongo banketxe edo aurrezki kutxatan helbideratu ez duten zergapekoek udal bulegoan ordaindu beharko dute, aipatutako borondatezko aldian.

Bankuetan helbideratutako ordainketak: udalak izapidetuko ditu.

Borondatezko aldia amaituta, ordaindu gabeko kuotak premiamenduko betearazte bidean sartuko dira, eta legez ezarritako errekarguak, eta, hala badagokio, berandutze korrituak eta kostuak sortuko dituzte.

Eta hori publiko egiten da, denek jakin dezaten.

Navaridas, 2020ko otsailaren 28a

Alkatea

MIGUEL ÁNGEL FERNÁNDEZ GONZÁLEZ